



NAFARROAK GAZTE MAILAKO BANAKAKO AGINTE-MAKILA BILATUKO DU

Quevedo, Eguzkiza, Sarasibar eta Purroy palistek Espainiako Federazioen arteko Txapelketa jokatuko dute otsailaren 11-tik 13-ra.

Iruñea, 2022ko otsailaren 10ean.

Asteburu honetan Nafarroako gazte mailako emakumezkoen pala goma selekzioak Espainiako Federazioen arteko Txapelketan (30 metroko frontoian buruz-buru) hartuko du parte, otsailaren 11-tik 13-ra Valentziako Guadassuar eta Canals herrietan jokatuko dena.

Hautatuak Juncal Quevedo (C.D. Amaya), María Eguzkiza (C.D. Larraun), Olaia Sarasibar (C.D. Amaya) eta Irati Purroy (C. Tennis Pamplona) pilotariak izan dira eta Valentziako, Gaztela-Mantxako, Kanarietako, Gaztela eta Leoneko eta Andaluziako selekzioen aurka arituko diren hiru talde nafarrak ordezkatu dituzte titulu nazionala lortzeko helburuarekin.

Nafarroako selekzioak jokatuko dituen klasifikazio faseko partiduak (otsailak 11, ostirala) eta final-laurdenak Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzako Facebook orriaren bitartez zuzenean jarraitu ahalko dira. Txapelketako Fase Finala Espainiako Federazioaren kanal ofizialean jarraitzeko aukera egongo da.

ESPEDIZIOA

Maider Ardanaz

Hautatzailea

Manex Pedroarena,

Ordezkarria

Izena	Jaiotze-data	Kluba
Juncal Quevedo Laquidain	Iruñea, 2004	C.D. Amaya
María Eguzkiza Argaña	Albiasu, 2007	C.D. Larraun
Olaia Sarasibar Toral	Beunza, 2005	C.D. Amaya
Irati Purroy Reta	Iruñea, 2005	C. Tennis Pamplona

INFORMAZIO GEHIAGO:

- + Lehiaketa-sistema kontsultatu bit.ly/33bSahw
- + Egutegia kontsultatu: bit.ly/34rCnM4
- + Emaizak eta klasifikazioak kontsultatu: bit.ly/33968AL